


LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2. MAILA

2025/2026 IKASTURTEA

MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA



(Otix, 2023)

K3 MODULUA

KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

Moduluaren koordinatzailea: Maite Aperribay

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MODULUAREN IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK	3
3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA.....	3
4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK.....	5
5. EGIN BEHARREKO LANA	6
5.1. Ezaugarriak orokorrak.....	6
5.2. Metodologia.....	6
5.3. Kronograma eta lanaren faseak.....	7
5.4. Lana egiteko orientazioak.....	10
5.5. Lanaren entregak	10
6. EBALUAZIOA.....	11
6.1. Ohiko eta ez ohiko deialdiak.....	11
6.2. Errubrikak.....	11
7. BIBLIOGRAFIA	15

1. SARRERA

Zentroa: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Moduluaren izena: Komunikaziorako tresnak.
Bigarren maila. Lehen lauhilekoa.

2. MODULUAREN IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK

IRAKASLEA	IKASGAIA	EMAILA	BULEGOA
Maite Aperribay (Koordinatzailea)	Romunikazio Gaitasunaren Garapena II	maite.aperribay@ehu.eus	B.3
Gema Lasarte	Romunikazio Gaitasunaren Garapena II	gema.lasarte@ehu.eus	2.9
Itsaso Madariaga	Artearen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza	itsaso.madariaga@ehu.eus	2.6
Lourdes Dominguez	Artearen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza	lourdes.dominguez@ehu.eus	PDI 03
Asier Ealo	Musika Lehen Hezkuntzan	asier.ealo@ehu.eus	PDI 01

3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA

3.1. Modulu-lana

Rezkatzekoa da zenbat ordu pasatzen dugun/duten haurrek pantailen aurrean. Urtean zehar pasatzen ditugun/dituzten orduak eskolan pasatakoak baino gehiago izaten dira; hori kezkarria izanik, beste eragile batzuk ere gehitu beharko genizkioke, hala nola, pantailetakoa eduki askok duten heziketa-xede eskasa nahiz umeek benetakoa eta

asmatuaren artean bereizteko izan dezaketen zailtasuna. "Hipererrealitate" (Baudrillard, 1987) horretan bizitzea, are larriago izan daiteke hori aztertzeke gaitasunik lantzen ez bada. Hipererrealitateaz mintzo garenean, errealitatea zeinuen bidez ordezkatzeko dihardugu, hau da, egunero kontsumitzen ditugun kanal eta komunikazioetan inplikaturako simulazio-estrategia horiek errealitatearen ordezeko bilakatzeaz alegia (Corrales, 2018).

Hezkuntzan kultura bisualaren eraginak ikuspegi zabalagoa izatea nahiko genuke. Horrek, lehenik, nahitaez hausnarketa teoriko batera garamatza, haurrentzako hainbat plataformen eskaintzaren azterketa egitera alegia. Hausnarketa teoriko horrek bide eman behar digu errealitatera gerturatzeko, eta ondoren modu praktikokan ikastetxeko egonaldiaz baliaturik, zuzenean murgiltzeko. Errealitatera hurreratzeak duen xedea, beraz, egunero haurrei eskaintzen zaizkien ikus-entzunezko eduki motak ezagutzea da, eta haien azterketa zehatzago bat egitea. Hartara, Ikastetxeko egonaldian datuak jasotzeko eta aztertzeke behatze aktiboa egingo da: alde batetik, ikastetxean gaiari loturiko baliabideak eta haiek erabiltzeko moduak ezagutuz; beste alde batetik, egonaldian haurrek pantailekin dituzten ohiturak ezagutuko dira eta plataformen bitartez eta ingurunean kontsumitzen dituzten edukiek haiengan nolako eragina duten aztertuko da. Praktikaldian, lanaren gaia bide ona izan daiteke haurrekin eta hauen inguruarekin aritzeko, bai elkarriketa informalean bidez, bai aurrez tutorearekin hitzartutako saioen baten bidez.

Praktikaldiko egonaldian jaso eta aztertutako datuek erronka profesionalaren aurrean jarriko du ikaslea, eta horixe nahi da, hain zuzen, diziplinarren lanaren bidez. Behatze aktiboaren eta beste bide batzuen bidez lortutako datuekin, bat egin behar dute norbanakoak nahiz haurren artean bizitza digitalean dagoen aldeaz eta kontsumo arduratsuez eta pantailen erabilpen ohitura osasungarriaz egin duten azterketa nahiz hausnarketa adierazteko. Eskolatik bueltan, eginiko irakurketa teorikoaren analisisiaz haraindi, praktikan ikusitakoa analizatu eta interpretatuko dute. Azkenik, ikusi eta ikasitakoa transformatzea eskatuko zaie manifestu baten bidez, hau da, praktika onen iparrorratza izan daitezkeen asmo idatzien bidez.

3.2. Taldeen osaketa

Moduluko diziplinarteko lana bost ikasleko taldeetan egingo da. Lan taldeen eratzea ikasleek adostuko dute; hala, practicumak lanean duen garrantziak bi aukera dakartza taldeak eratzeko:

Praktika zentro berean dauden ikasleek eratutako taldeak lana egitea erraz dezake, ikastetxe berean behaketa egin eta datuak jaso eta aztertzeak ikuspegi bateratuagoa emango baitu. Edota, zentro desberdinetan dauden ikasleek eratutako taldea. Kasu horretan, ikuspegi anitzagoa aurki dezakegu, baina leku bereizietan egon daitezkeen ingurunetan behaketa eta datu biltze eta azterketa egiteak haien artean alderatzea egiteko bidea emango du.

Kasuistika horiez gain, lan taldeak eratzeko orduan, ikasleei gomendatzen zaie kontuan izan dezaten lana ongi egiten lagun dezaketen zenbait irizpide: alde batetik, eraginkortasun maila egoki bat lortzeko aurreikuspena, eta horri lagunduko dio aurretik harreman pertsonala eta lanekoa egoteak, eta baita taldeko kideak elkarrengandik gertu bizitzeak ere.

Taldeen osaketa lehen eskola astean adostu behar dute ikasleek eta irakasleetako batek jasoko du horren berri, honek ondoren taldeen zerrenda pasako die beste irakasleei (lan taldeak, jakina, berbera izan behar du moduluko ikasgai guztietan).

4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

4.1. Helburuak

- Gaiari dagozkion irakurketak analizatzen nahiz interpretatzen jakitea.
- Practicumean behatutakoa irakurritakoarekin erkatzen jakitea.
- Behatutakoa transformatzeko aldarriak egiten jakitea.
- Eginiko lanaren prozesua ahoz modu sortzailean nahiz performatiboan defendatzen jakitea.

4.2. Gaitasunak

M1. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.
M2. Esperientzia eremu desberdinen printzipioak ezagutzea, bere baliabide didaktiko zehatzak ezarriz irakaslanari hurreratzean.
M3. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen komunikazio konpetentziak garatzea, Europako erreferentzia markoko B2 maila lortu arte.

4.3. Irakaskuntza emaitzak

Gaiari loturiko jakintza eta kritikotasuna. Ikus kulturen nahiz pantailen erabilpenak haurrengan duen eraginaren transformazio maila. Eginiko lanaren sintesi eta sorkuntza maila.

5. EGIN BEHARREKO LANA

5.1. Ezaugarriak orokorrak

Hiru ezaugarriren gainean hartzen du oin lan honek. Lehenik, egin behar diren irakurketen analisiek berebiziko garrantzia dute. Bigarrenik, ikastetxean elaboratuko teoriaren gainean behatzea oso inportantea izango da, eta azkenik, modu sortzailean gaiaren inguruko manifestua ez ezik ahozko defentsa modu performatiboan egitea baloratuko da.

5.2. Metodologia

Lanaren garapenaren jarraipena tutoreek egingo dute. Lehenik, praktiketara joan aurretik ikasgai bakoitzak bere ikasgaiarekin loturiko jarduerak egingo ditu, dela irakurketa, dela behaketa tresnen sorrera. Irakurketa eta tresna horien erabilpena egingo da praktikaldian, bueltan gaiaren inguruko gogoeta eta transformazioa egin ahal izateko.

Ikasturtea amaitzeko talde bakoitzak MANIFESTUA (%50), eginiko lanaren prozesu sintetizatua (bi edo hiru orrialde) eta aldarria entregatuko dio dagokion tutoreari. Azkenik,

manifestua nahiz prozesua entregatzearekin batera, K3k horretarako antolaturiko tribunalaren aurrean modulu lana ahoz aldeztuko da (% 50).

5.3. Kronograma eta lanaren faseak

EGINKIZUNEN KRONOGRAMA			
Noiz	Zer	Nork	Ebaluazioa
irailean zehar	- Debateak - Marko teorikoa eta juridikoa prestatu - Praktiketari erabiliko dituzten tresnak prestatu	M+K+A M+K+A M+K+A	
irailak 23 – urriak 24	Practicum I: behaketa tresnak martxan jarri	Ikasleek	
azaroa-abendua	Manifestuaren idazketan lan autonomoa	Ikasleek	
abenduak 15-20	Manifestuen entrega ahozkoekin batera egingo da	M+K+A	Tutoreak Manifestua ebaluatuko du (ebaluazioaren % 50). Ikus errubrika I.
abenduak 15-20	Ahozkoen defentsa Eta Manifestuekin agerraldia	M+K+A	Ahozkoan, ahozko defentsa ez ezik lanaren prozesua ebaluatuko da (ebaluazioaren % 50). Ikus errubrika II.

AURREIKUSITAKO LAN FASEAK

Hiru fase aurreikusten dira:

1. FASEA: PRAKTIKALDIKO EGONALDIA BAINO LEHEN

IRAILEKO ASTEAK

Ikasgaiaren hasierako lan asteetan eta praktiketara joan aurretik ikasgai bakoitzari dagozkion irakurketak egingo dira. Erreferentzietan nahiz eGelan azaltzen diren dokumentuak oinarri izan daitezke hausnarketa teorikoa egiteko, hausnarketa hori moduluko ikasgaietan egin behar da, bertatik jar daitezkeen galdera edo gida puntuen laguntzaz. Ondorengo gida puntu hauek erabil genitzake eta moduluko ikasgai bakoitzak jar ditzake ondoen iruditzen zaizkionak.

- Zer esan nahi dugu ikus kultura hezitzailea diogunean?
- Plataformak inguru kulturalaren parte.
- Hizkuntzen trataera.
- Programa hezitzaileak / programa ez hezitzaileak.
- Imitazioa eta honen garrantzia nortasuna garatzerakoan.
- Heziketarako edukien azterketa eta balioespena pantailetan: (telebista kateren baten haurrentzako programazioaren azterketa egin daiteke).
- Kulturaren irudia.
- Genero tratamendua.
- Sexu edukia.
- Bortizkeria edukia.
- Haurren jokabidean izan dezakeen ondorioa.

Bestalde, praktikaldian egin behar duten ikerketarako tresnak zehaztu eta sortuko dira. Tresna hauek behaketarako fitxak, zuzendaritzako, guraso edota irakasleren bati egiteko elkarrizketa proposamenak edota ikasleek etxera eramateko galdetegiak izan daitezke.

2. FASEA: PRACTICUM EGONALDIAN

PRAKTIKALDIKO ASTEAK

Praktikaldian ikerketa lana egingo da. Horretarako behaketaren bidez datuak bilduko dira, praktiketatik bueltan analizatu ahal izateko eta hortik manifestua prestatzeko. Practicumaren egonaldiak bide ematen du esparru teorikoan jarri diren hainbat gauza errealitatearekin alderatzeko; praktikaldiko esperientzia, ahaztu barik lehen harreman bat dela, xede nagusia du behatze aktiboa egitea, eta aukera ematen du proposatutako gaiaren inguruan zenbait intereseke datu jaso eta aztertzeke.

Ikastetxeetan dauden pantailen inguruko baliabideen eta hauen erabileraren berri zehatza eskuratzeaz gain, neska-mutilekin harreman zuzena izateak, eta haien familiekiko balizko harremanak, bide emango du haien informazio eta komunikazio kontsumo ohiturak

aztertzeke, eta kontsumitzen dituzten edukiak nola eragiten duten haien harremantzeko moduetan edota identitatea eraikitzeke moduetan behatzeko. Honako alderdi hauek adibide dira soilik, kontuan har daitezke practicumeko egonaldian baliatzeko:

- Ikastetxean pantailak nola erabiltzen diren aztertzea.
- Ikastetxeak dituen IKTak eta horien erabilera.
- Pantailekin lotutako toki eta materialak.
- Nola erabili asmo dute pantaila zikloetako taldeetan?
- Pantailetan zein eduki kontsumitzen dute? Ikastetxeak ikus-kultura lantzeko baliabiderik ba al du? Nola lantzen ditu edukiak?
- Mugikorren erabilpenaren araurik edota gurasoekin adosturik deus dute?

Datuak biltzea oinarri dokumentuetan jarritako gaiei buruz:

- Batez beste zenbat ordu ematen dute haurrek pantailen aurrean?
- Zenbat pantaila kudeatzen ditu haurrak, etxean nahiz gelan; modu kolektiboan nahiz indibidualean?
- Gurasoen esku-hartzea pantailen kudeaketan.
- Zein eduki mota bultzatu nahi dute gurasoek? Zein eduki baztertzen dituzte sistematikoki beren seme-alabengandik?
- Zein eduki dira kontsumitu ohi dituztenak?
- Practicumean egin dugun egonaldian zein jarrera ikusi ahal izan ditugu haurrengan?
- Pantailen edukien eragina imitazioan (jantziak, osagarriak, erreferenteak, jarrerak...).
- Pantailen edukiek haurren hizkeran duten eragina.
- Badagoen umeei, pantailetan, sarritan ikusten duten musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria daukan?
- Badagoen pantailen eskaintzan haurrentzako programazioan, gurasoak sustatzen saiatzen diren musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria daukan.
- Badagoen pantailen bidez haurrentzako programazioan, ikastetxeko irakasleek sustatzen duten musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria daukan.
- Pantaila edukien edo arte-musika programen eragina ikasgelan: janzkera, hizkera, gustuak eta lehentasun musikalak, eta abar.
- Tik Tok, ikus-entzunezko bideoklipak...

3. FASEA: PRACTICUM EGONALDIAREN ONDOREN

AZAROA-ABENDUA

Praktikalditik bueltatzean eta abenduaren erdira arte taldeek teorian landutakoa eta praktikaldian behatutakoa alderatu eta beraien kabuz lan egin beharko dute manifestua sortzeko. Aste hauetan manifestua edota ikusi eta ikasitakoaren transformazioa egingo da. Hau da, irakurketa horiek nahiz ikastetxean ikertutakoa non geratzen den ikusiko da: manifestuari, aldarriari lekua eginaz. Praktikaldian egindako behaketa, elkarrizketa edo galdetegietatik ondorioztatu diren datuak kontuan izanda pantailen erabilera osasuntsu/onuragarri bat egiteko aldarria jasotzen duen MANIFESTU bat sortu beharko du talde bakoitzak. Manifestuarekin batera berau gorpuzteko egin duten gogoeta ere garatu beharko dute (orotara bi edo hiru orrialdetan), moduluan parte-hartzen duten irakasgai guztietatik ekarpenak eginez. Manifestu ebaluazioan % 50eko pisua izango du.

Azkenik, manifestuaren defentsa tribunalaren aurrean egingo da azken eskola astean eta notaren % 50 izango. Data zehatzak aurrerago jakinaraziko dira eGelaren bidez. Manifestuak tutoreek kalifikatuko badituzte ere, lanaren ahozko defentsa epaimahaiak egingo du. Biak onartatu beharko dira modulua gainditu ahal izateko.

5.4. Lana egiteko orientazioak

Lehen fasean ikasgaiekin loturik ariko gara lanean. Horrela irakurketak nahiz ikerketa tresnak aipatu eta ikusiko dira. Pentsamendu kritikoa landu nahi da irakurketen bidez. Bidean, sintetizatzea, analizatzea eta interpretatzea izango dira eginbehar nagusiak ikasturte hasieran. Lehen asteetan irakurritakoa praktiketan ikusitakoarekin kontrastean jarriko da, hau da, plataformen nahiz ikus kulturaren erabilpenarekin kontrastean.

Behin corpus teorikoa enpirikoarekin kontrastatu ostean, irakurritakoaren analisisa eta ikusitakoaren hausnarketa transformatzearen ordua izango da. Horretarako manifestua egingo da. Ahal dela sortzailea, ikusgarria eta laburra. Ahozko defentsetan, bidean, sormen artistikoa balioetsiko da.

5.5. Lanaren entregak

Lanaren entregak ikasturtearen azkeneko astean egingo dira; ahozko defentsa egunean lana inprimatuta eramango da eta une berean eGela plataformara igoko da.

6. EBALUAZIOA

6.1. Ohiko eta ez ohiko deialdiak

Ebaluatzeko bi modalitate egongo dira, bata jarraitua eta bestea ez jarraitua. Jarraituek etengabeko ebaluazioa egingo dute eta ez jarraituek, berriz, azken ebaluazioa.

Etengabeko ebaluazioa egingo duten ikasleentzako ebaluazioa: Modulu-lana taldean egingo da eta honen kalifikazioa ikasgaiaren kalifikazioaren puntu bat izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostuko dute eta diziiplina bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio.

- Etengabeko ebaluazioko ikasleak erreferentziatzat hartuko du ikaslearen gida honetan zehaztutako lanaren kronograma.
- Manifestuaren nota % 50 nahitaez gainditu beharko da.
- Azkenik, modulu lanaren defentsa ahozkoaren bidez egingo da. Notaren beste % 50 izango da. Hau ere nahitaez gainditu beharko da.
- Irakasgairik ez da gaindituko K3a gainditu ezean.
- K3 moduluko lana gaindituta baldin badago eta ikasgaia gainditu gabe, K3aren kalifikazioa gordeko da.
- Etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleek modulu lana gainditzen ez badute ez-ohiko deialdiko K3ko azken ebaluazioa gainditu beharko dute.

Ez jarraituan ari diren ikasleentzako azken ebaluazioa: Ez jarraituan dihardutenei praktikaldian landuko diren gaien nahiz marko teorikoan landuko diren gaien inguruan idatzizko azterketa teorikoa (azken ebaluazioa) egingo zaie eta moduluan parte-hartzen duten irakasgai bakoitzaren puntu 1 (% 10) balioko ditu. Modulu azterketa ofizialaren datan (ikus Fakultateko webgunea) ikasle bakoitzak matrikulatu dituen ikasgaien K3ko azterketa burutu beharko du. Hartara, K3a ikasgai bakoitzean integratua geratzen da.

6.2. Errubrikak

Jarraian aurkezten diren errubrikak izango dira moduluko irakasleek ikasleen lanak ebaluatzeko erabiliko diren tresnak. Lehen errubrikak irakurketa nahiz behaketa lana eta ondorioz sorturiko Manifestua ebaluatzeko balioko du. Oso errubrika xehatua da eta

erantzun nahi dio moduluaren konpetentziei, lehen aipaturikoei, eta haiei buruz egindako lanaren bilakaerari. Ahozko lana ebaluatzeko bigarren errubrika bat azaltzen da.

ERRUBRIKA I: EGINDAKO LANEN EDUKIAK EBALUATZEN (ULERTU/ANALIZATU/TRANSFORMATU)

EDUKIAK	HOBETU BEHAR	ONARGARRIA	ONDO	OSO ONDO	BIKAIN
EDUKIAK ULERTZEN LANA ETA BIBLIOGRAFIA	Emandako testuak ez dira erabili edo ez dira ondo erreferentziatu	Testu bakoitzeko aipu bat eta erreferentziak bibliografian	Testu bakoitzeko aipu bat eta erreferentziak bibliografian APA arauak jarraituz	Testu bakoitzeko aipu bat baino gehiago eta erreferentziak bibliografian APA arauak jarraituz	Emandako testuez gain bibliografia osagarria erabili da eta APA arauak ondo jarraitu dira
EDUKIAK ULERTZEN IRAKURKETAK INTERPRETATZEN	Irakurketa exkaxak egin dira	Irakurketak testuingurua ulertzeko adina izan dira	Irakurketak ondo egin dituzte.	Jarritako irakurketez gain eurek bere kabuz beste batzuk proposatu dituzte	Eskatutako irakurketak eta eurek aukeratutako irakurketa egokiak landu dituzte
EDUKIAK ANALIZATZEN	Eginiko irakurketekin ez dute gaitasunik izan eskolan zer behatu edo galdetu jakiteko	Eginiko irakurketekin behaketa fitxa bat diseinatu dute	Eginiko irakurketarekin behaketarako nahiz elkarrizketa posibleetarako adierazleak aurkitu dituzte	Eginiko irakurketarekin behaketarako nahiz elkarrizketa posibleetarako adierazleak aurkitu dituzte.	Behaketarako nahiz elkarrizketen diseinurako tresnak eginik, tresnak non eta norekin erabili zehaztu dute
IKERKETA EMAITZAK ANALIZATZEN	Datu gutxi ekarri dute	Datu biketa tresna batekin osatu da	Datu biketa tresna bat baino gehiagoz baliatu da	Tresna diferenteak erabili dira eta kontestu diferenteak aztertu eta analizatu dira	Tresna diferenteak erabili dira eta kontestu diferenteak nahiz eragile diferenteak aztertu eta analizatu dira
IKUSITAKOA ETA IKASITAKOA TRANSFORMATZEN	Dekalogotik manifestura pasatzen ez dute jakin	Dekalogotik Manifestura dagoen aldea demostratzen jakin dute	Hainbat ideia axial garatu dituzte dekalogotik manifesturako transformazioan	Dekalogotik manifestura oso ondo moldatu dira eta euren ideiak oso transformatzaileak izan dira	Dekalogotik manifestura bikain moldatu dira eta euren ideiak erabat transformatzaileak izan dira

ERRUBRIKA II: AHOZKO AURKEZPENAREN ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. NOTAREN %50


EBALUAZIO IRIZPIDEAK	HOBETU BEHAR	ONARGARRIA	LAN ONA	LAN BIKAINA
1. Sintesi gaitasuna eta lan modularren ideien garbitasuna eta koherentzia. Aurkezpenerako artefaktuak. (3 puntu)	Lana sintetizatu gabe eta ideiak koherentziarik gabe eta argitasunik gabe eman dira. Artefaktu lagungarriak ez dute batere lagundu sintesian nahiz ordenean.	Modu onargarrian sintetizatu eta ideiak ordenatuta azaldu ditu. Zehaztasun hori ahozkoan nahiz artefaktuetan gertatu da. Horrela, mezua modu onargarrian ulertu da.	Sintesia eta ideien argitasuna eta ordena ona izan da. Erabili diren artefaktuen antolaketak argitasuna eta koherentzia eman dizkio aurkezpenerari. Hitz batean, argitasun honek lana ondu du.	Gaia modu bikainean sintetizatu da eta ideia nagusiak modu oso argian azaldu dira. Lan hori aurkezteko erabilitako artefaktuak modu bikainean prestatuak zeuden.
2. Auto-kontrola. Konbikzioa. Seguritatea. Erregistroa. Sarrera. Bukaera. Intonazioa. (2 puntu)	Subjektua modu beldurtuan eta batere seguritatearik gabe aritu da eta mezuaren erregistroa nahiz antolaketak prestatu gabe.	Modu onargarrian kontrolatu du mezulariak bereburua nahiz mezuaren erregistroa eta antolaketak. Intonazioa ere modu onargarrian kudeatu du.	Subjektuak mezuan nahiz erregistroan konbikzio ona azaldu du; mezuaren sarrera, irteera, nahiz gorpuztea ondo taxutu ditu eta hori gauzatzeko intonazio ona egokitu du.	Subjektuak auto-kontrola, mezua, nahiz diskurtsoak eskatzen duen erregistroa eta intonazioa modu bikainean kudeatu ditu.
3. Gorputza. Posturak. Keinuak. Aurpegia. Distantzia. (puntu 1) Ahotsa. Bolumena. Tonua. Erritmoa. Isiluneak. (puntu 1)	Ahotsaz gaindi komunikatzeko erabil daitezkeen elementuen ezjakintasuna erakutsi du. Diskurtsu planobategin du. Lineala. Ahotsaren baliabideak ez ditu ezagutzen.	Modu onargarrian jakin izan du gorputza eta distantziak kudeatzen, honekin batera, postura, keinuak eta aurpegia era onargarrian kudeatu ditu. Ahotsaren erabilera ezagutzen du eta linealtasuna modu onargarrian apurtu du.	Gorputza, distantziak, postura, keinuak, eta aurpegia ondo erabili ditu, aurkezpenerari edota lanari sendotasuna emanaz. Ahotsa, bolumena, tinbreak, erritmoak, nahiz isiltasunak ondo kudeatu ditu, hitzari sendotasuna emanaz.	Gorputza eta elementu paralinguistikoak modu bikainean kudeatu ditu lanari bikaintasuna emanaz. Modu bikainean kudeatu du erritmoa, hitza eta isiltasuna. Halaber, ahotsaren baliabideak bikain erabili ditu mezua bikain kudeatzuz.
5. Publikoarekin komunikazioa. Begiradak. Publikoa aintzat hartzea. (2 puntu)	Ez dio inori begiratzen Hitz egiterakoan. Buruz aritu da edota paretari begira. Beretzat izan da aurkezpenera.	Modu onargarrian saiatu da entzuleei begiratzen eta komunikatzen.	Erakutsi du barridoak egiten ondo dakiela eta jendea begiratu behar dela. Hau da, mezuari bi alde daudela ondo azpimarratu du, hizlaria eta publikoa.	Jendearekin bikain komunikatzen du. Esaten duenaz gain, entzulearen begiradak eta keinuak jasoz eta horiei itsumustuan erantzuten jakinaz.
6. Euskara. (puntu 1) *Baina nahitaez gainditu beharrekoa	Akats sistematikoak daude. Egitura arruntak eta sinpleak eta ia lokailurik ez. Lexiko pobrea, monotonia eta zehazgabekia. Errore larriak ageri dira testua antolatzen. Ideiak eta esaldiak gaizki lotzen ditu. Informazio ez pertinetza hautatu eta progresio tematiko ez egokia. Ez du erregistroa egoera komunikatibora egokitzen.	Oro har, enuntziatuak ondo eraikitzen ditu. Esaldiak lotzen ditu. Akats batzuk ageri dira. Egitura arruntagoak darabiltza. Lexikoa nahiko zuzen darabil. Akats batzuk daude, betiere sistematikoak ez direnak. Oro har, azalpenaren sekuentzia ezartzen du, nahiz eta antolakuntza- akats arinak ageri diren. Oro har, ideiak eta esaldiak lotuak ageri dira, akats zenbait ageri badira ere. Ez du nahasmenik sortzen. Informazioa pertinetza hautatu eta progresio logikoan antolatzen du. Oro har, egoera komunikatibora egokitzen du erregistroa. Akats arinak daude.	Enuntziatuak ongi eraikitzen ditu. Akatsen bat ageri da. Egitura konplexuak darabiltza. Termino zehatza egokiro hautatzen du, oro har. Lexiko aberatsa. Oro har, azalpenaren egitura mantentzen du. Diskurtsoa ongi antolatzen du, nahiz eta problemaren bat ager daitekeen. Ideiak eta esaldiak ongi lotzen ditu, nahiz eta akats bakanen bat ageri den. Nagusiki informazio pertinetza hautatu du eta nahiko progresio logikoan antolatzen du. Egoera komunikatibora ongi egokitzen du erregistroa, akats arinen bat ager daitekeen arren.	Enuntziatuak bikain eraikitzen ditu. Ez dago akatsik. Egitura konplexuak erabiltzen daki. Termino zehatza egokiro hautatzen du. Lexiko aberatsa. Azalpenaren arabera eraikitzen du testua, enuntziatuak ederki osatzen dituela. Ideiak eta esaldiak bikain lotzen ditu. Informazio pertinetza hautatu eta progresio logikoan antolatzen du beti. Egoera komunikatibora ederki egokitzen du erregistroa

7. BIBLIOGRAFIA

- 13/2022 Lege Orokorra, uztailaren 7koa, Ikus-Entzunezko Komunikazioari buruzkoa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-11311-consolidado.pdf>
- Acaso, M. (2006). *Esto no son las torres gemelas. Cómo aprender a leer la televisión y otras imágenes*. Catarata.
- Clares, E. eta Gómez-Mármol, A. (2018). Igualdad de género en educación primaria en las áreas de música y educación física. *Trances: Transmisión del conocimiento educativo y de la salud*, 11(1), 51-62.
- Corrales Heras, A.C. (2018). Una aproximación a la imagen contemporánea: la educomunicación como propuesta educativa interdisciplinar para una ciudadanía crítica. *Aularia: Revista Digital de Comunicación*, 7(1), 21-28.
- del-Portillo-García, A. (2005). La hipnosis de las pantallas: reflexiones ante un posible despertar del telespectador. *Comunicar*, 25. <https://doi.org/10.3916/C25-2005-041>
- Domínguez, Y. (2021). *Maldito estereotipo. Así te manipulan los medios y las imágenes*. Penguin Random House.
- Dussel, I. (2009). Escuela y cultura de la imagen: los nuevos desafíos. *Nómadas*, 30, 180-193.
- DW Documental (2022ko otsailak 15a). ¿Cómo nos influye la música? [Bideoa]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=9QNZqozcdNg>
- Fernández, M. (2023). Distorsiones disidentes. Hacia una educación musical con perspectiva de género. *Vías alternativas en procesos de investigación-ceración y enseñanza artística*, 6, 127-144.
- Fernández de Arroyabe Olaortua, A., Eguskiza Sesumaga, L. eta Lazkano Arrillaga, I. (2020). El futuro de las lenguas minoritarias en Internet en manos de los jóvenes prosumidores. El caso vasco. *Cuadernos.info*, 46, 367-396. <https://doi.org/10.7764/cdi.46.1411>
- Fernández de Arroyabe Olaortua, A., Eguskiza-Sesumaga, L. eta Miguel Sáez de Urabain, A. (2019). ¿Hay futuro para el euskera? Las implicaciones de las lenguas hegemónicas en el consumo audiovisual de los adolescentes. *Comunicación y Sociedad*, 32(1), 333 – 349.
- Fernández de Arroyabe Olaortua A., Eguskiza-Sesumaga L. eta Miguel Sáez de Urabain A. (2020). Las pantallas preferidas por los jóvenes vascos. El uso de los dispositivos y plataformas digitales por parte de los estudiantes de Secundaria. *Historia y Comunicación Social*, 25(2), 551-561. <https://doi.org/10.5209/hics.72284>
- Fernández de Arroyabe, A., Lazkano, I., eta Eguskiza, L. (2018). Nativos digitales. Consumo, creación y difusión de contenidos audiovisuales online. *Comunicar* 57 (XXVI), 61-69. <https://doi.org/10.3916/C57-2018-06>
- Fuentes, I., Navarrete, E. C. eta Romero, H. (2017). Preferencias musicales en preadolescentes y la formación de la identidad de género. *RIDE. Revista Iberoamericana para la Investigación y el Desarrollo Educativo*, 8(15), 210-232. <https://ride.org.mx/index.php/RIDE/article/view/297>

- Fundación Mujeres (2019ko uztailaren 3an). Educar en igualdad. <https://www.educarenigualdad.org/como-te-suenan/>
- Hezkuntzartea (2024). Manifestua: Irakasleok ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatuko duen eskola nahi dugu. Hemen eskuragarri: <https://sites.google.com/view/hezkuntzartea/orri-nagusia/manifestua>
- Ikusiker. Ikus-entzunezkoen behategia. <https://ikusiker.eus/>
- Iriondo Azpíri, E. (2023). Euskarazko ikus-entzunezkoen egungo produkzioa: ekoizpenaren, kontsumoaren eta zabalkundearen azterketa, begirada kualitatiboa ardatz. In H. Castro Egia eta L. Mimenza Castillo (Arg.), *Euskal Hedabideen Urtekaria 2022-2023* (93-104). Behategia.
- Kusý, P. eta Vindiová, R. (2024). Posibilidades de medidas de preferencia musical en niños y niñas en edad escolar. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 21(3), 24. <https://doi.org/10.5209/reciem.92121>
- Larrinaga, A. (2019). *Euskal Telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan*. Doktore tesia. UPV/EHU.
- Lozano-Blasco, R., Mira-Aladrén, M., eta Gil-Lamata, M. (2023). Redes sociales y su influencia en los jóvenes y niños. Análisis de Instagram, Twitter y YouTube. *Comunicar* 74 (XXXI), 125-137. <https://doi.org/10.3916/C74-2023-10>
- Martínez Juárez, A. (2024). Euskarazko edukien kontsumoa eta gune soziolinguistikoak: bi aldagaien arteko harremana fokuan. In H. Castro Egia eta L. Mimenza Castillo (Arg.), *Euskal Hedabideen Urtekaria 2023-2024* (131-146). Behategia.
- Martínez Peña, I. (2023). *Pantailen garaipena: begirada totalitarismoaren kontra*. Elkar.
- Nafarroako Gobernua (2019). Haurtzaroan eta nerabezaroan pantailak modu seguruan eta osasungarrian erabiltzeko dekalogo. Hemen eskuragarri: <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2019/12/12/osasun-publikoak-dekalogo-egin-du-haurtzaroan-eta-nerabezaroan-pantailak-modu-seguruan-eta-osasungarrian-erabiltzea-sustatzeko#lg=1&slide=0>
- Otix, J. (2023ko ekainak 6a). *Vandalizado el mural de 'El beso' de Fontcuberta en Barcelona*. El Periódico. <https://www.elperiodico.com/es/fotos/barcelona/vandalizado-mural-beso-fontcuberta-barcelona-fotos-88362052>
- Pantailak Euskaraz (2021). Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko manifestua. Hemen eskuragarri: <https://www.pantailakeuskaraz.eus/euskarazko-ikus-entzunezkoen-aldeko-manifestua/>
- Pérez Escoda, A. (2018). Uso de smartphones y redes sociales en alumnos/as de Educación Primaria. *Revista Prisma Social*, 20, 76-91.
- Público. (2016, 17 de diciembre). El emotivo discurso de Madonna en una entrega de premios: "Vuestro machismo me ha hecho más fuerte". Público. <https://www.publico.es/culturas/emotivo-discurso-madonna-entrega-premios-vuestro-machismo-me-hecho-fuerte.html>
- Sánchez Blanco, L., Urchaga Litago, J. D., Lugones Hoya, A., eta Carballa Rivas, N. M. (2025). Sexism in music hits: Audiovisual perception of prospective teachers. *Revista Electrónica de LEEME*, (55), 1-13. <https://doi.org/10.58262/LEEME.55.0001>

- Segovia Aguilar, B. eta Racionero Siles, F. (2015). Educar para la cultura visual ¿un reto o una necesidad? Una propuesta metodológica. *Investigación en La Escuela*, 85, 87–100. <https://doi.org/10.12795/IE.2015.i85.07>
- Soler Campo, S., Faure-Carvalho, A., eta Vernia Carrasco, A. M. (2022). Reguetón y representaciones de la mujer: un estudio en Educación Secundaria. *Revista Internacional de Educación Musical*, 10(1), 25–32. <https://doi.org/10.1177/23074841221131431>
- UEMA (2022). *Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan*. Hemen eskuragarri: <https://www.uma.eus/eu-ES/ikerketak-argitalpenak/ikerketak/ikerketak/05-ikus-entzunezkoen-kontsumoa-udalerri-euskaldunetan-2022.pdf>
- Urkidi, P. (2004). *Practicum behaketarako tresna*. UPV/EHU sare argitalpena.
- Urkizu, U. (2024). *Txoria hodei artean*. EITB lehen eta gero. Elkar.



(Otix, 2023)